



**Pasaia Udalaren adierazpen instituzionala,  
2026eko LGTBIQ+fobiaren aurkako Nazioarteko  
Eguna dela eta**

**Declaración institucional del Ayuntamiento de  
Pasaia con motivo del Día Internacional contra la  
LGTBIQ+fobia 2026**

IFK/CIF P2006900A  
Tel. 943 344034  
Luz./Ext. 905  
Donibane kalea, 19  
20110 Pasaia

ALKATETZA  
alkatetza@pasaia.net

T010100

Gaur duela 36 urte, Osasunaren Mundu Erakundeak homosexualitatea gaitzen zerrendatik kendu zuen. 1990eko maiatzaren 17an kapitulu berri bat idatzi zen munduko historian, baina hau ez zen ausaz jazo. Urrats hori LGTBIQ+ kolektiboko norbanakoei esker eman zen; euren borrokari esker.

Aldarrikapen horien oihartzuna 2026ra iritsi da. Izan ere, despatologizazioak ez zuen ekarri jendartearen begirada aldatzea. Egun, kolektiboaren parte diren pertsonen oztupoak parez pare topatzen jarraitzen dute euren egunerokotasunean: diskriminazioa lan munduan, aurreiritziak eta erasoak, besteak beste.

Horregatik, Pasaia Udaltik gure konpromiso irmoa adierazi nahi dugu giza eskubideekin, benetako parekotasunarekin eta pertsona guztien askatasunarekin. LGTBIQ+fobiak ez du lekurik gure jendartean, eta are gutxiago errespetuan, aniztasunean, feminismoan eta justizia sozialean oinarrituta bizi nahi duen herri batean. Izan ere, askatasunez bizitzea guztion oinarritzko eskubidea da.

Pasa den 2025eko irailaren 19an, LGTBIQ+ Bizitzeko erradiografia partekatu genuen herritarrekin, eta kolektiboa duintasunez bizi ahal izateko politika zehatzak garatu eta burutzeko konpromiso publikoa berretsi genuen. Ekitaldi horretan, hain zuzen, politika horiek inplementatzeko ekintza-plan bat osatzeko konpromisoa hartu genuen, eta hala egin dugu.

Gainera, memoria ariketa bat egin nahi dugu kolektiboarekin batera. Memoria egitea ez da testigantzak jasotzea soilik; memoriak barne hartzen ditu egia, erreparazioa eta ez errepikatzeko konpromisoa ere.

Aurki martxan jarriko dugun ekintza-planean jasotako ekintzen artean daude, besteak beste:

Hoy hace 36 años, la Organización Mundial de la Salud eliminó la homosexualidad de la lista de enfermedades. El 17 de mayo de 1990 se escribió un nuevo capítulo en la historia mundial, pero esto no ocurrió al azar. Este paso se dio gracias a las personas del colectivo LGTBIQ+; gracias a su lucha.

El eco de estas reivindicaciones ha llegado a 2026. Y es que la despatologización no supuso un cambio en la mirada de la sociedad. En la actualidad, las personas que forman parte del colectivo siguen encontrando obstáculos en su día a día: discriminación en el mundo laboral, prejuicios y agresiones, entre otros.

Por ello, desde el Ayuntamiento de Pasaia queremos expresar nuestro firme compromiso con los derechos humanos, la paridad real y la libertad de todas las personas. La LGTBIQ+fobia no tiene cabida en nuestra sociedad y mucho menos en un pueblo que quiere vivir desde el respeto, la diversidad, el feminismo y la justicia social. Porque vivir libremente es un derecho fundamental de todas las personas.

El pasado 19 de septiembre de 2025 compartimos con la ciudadanía la radiografía LGTBIQ+Bizitzeko y reafirmamos nuestro compromiso público de desarrollar y llevar a cabo determinadas políticas encaminadas a que el colectivo pueda vivir con dignidad. En ese acto nos comprometimos a elaborar un plan de acción para implementar dichas políticas, y así lo hemos hecho.

Además, queremos hacer un ejercicio de memoria junto al colectivo. La memoria no se reduce a una recogida de testimonios; la memoria incluye la verdad, la reparación y el compromiso de no repetición.

Entre las acciones recogidas en el plan de acción que vamos a poner en marcha próximamente se encuentran las siguientes:

- Pasaiaiko LGTBIQ+ komunitatea saretzeko ekintza eta mekanismoak abiaraztea.
- Pasaiaiko LGTBIQ+ kolektiboaren memoria jasoko duen euskarria sortzea.
- Udaleko sailek neurriak modu autonomoan aplikatu ahal izateko formazioa eta aholkularitza ematea.
- Puesta en marcha de acciones y mecanismos para la articulación de la comunidad LGTBIQ+ en Pasaia.
- Creación de un soporte que recoja la memoria del colectivo LGTBIQ+ de Pasaia.
- Formación y asesoramiento para la aplicación autónoma de las medidas por parte de los diferentes departamentos municipales.

Horretaz gain, maiatzaren 17 honetan, edozein motatako LGTBIQ+fobiaren aurka lanean jarraitzeko gure konpromisoa berresten dugu. Lanean jarraituko dugu herritarren sentsibilizazioan sakontzen, kanpainak eta programak bultzatzen eta jendartearen kontzientziazioan aurrera egiten.

Gainera

Gaur, inoiz baino gehiago, LGTBI+ pertsonen aurkako gorroto eta indarkeria mota oro gaitzesten dugu, eta Pasaia askotarikoa, segurua, feminista eta aniztasunaz harro dagoena eraikitzen jarraitzeko gure konpromisoa berresten dugu.

Además, este 17 de mayo reafirmamos nuestro compromiso para seguir trabajando contra cualquier tipo de LGTBIQ+fobia. Seguiremos trabajando para profundizar en la sensibilización ciudadana, impulsar campañas y programas y avanzar en la concienciación social.

Además

Hoy, más que nunca, condenamos todo tipo de odio y violencia contra las personas LGTBI+ y reafirmamos nuestro compromiso para seguir construyendo un Pasaia diverso, seguro, feminista y orgulloso de la diversidad.